

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Ekimenean parte hartu nahi duenak, aurrez izena eman beharko du **943-466142** telefono zenbakira dei bat eginez edota email bat igorritz idezkaritza@aranzadi.eus helbide elektronikora.

Izen emateko epea, **maiatzaren 20an 13:30tan** amaitzen da.

Parte hartzaile kopurua **30 pertsonara** mugatua dago.

Irteeren joan etorria, otorduak eta ostatua (Lizarrustiko aterpetxean lo egitea) antolatzaileen kargu geratzen da, hau da **dohain** izango da.

Ikastaroa eta irteeren gidaritza **euskaraz** egingo da.

Kurtsoaren parte teorikoa (hitzaldiak) **Lizarrusti Parketxean** eskainiko dira.

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



ARALAR PARKE NATURALEKO ANFIBIO, NARRASTI ETA ODONATOEN IKASTAROA



ARGAZKIA. Ander Izagirre

MIKROHEZEGUNEAK, FISIKOKI TXIKIAK BAINA BIOLOGIKOKI ABERATSAK

Putzuak, askotan bestelako zerbait pentsatzen badugu ere, hezeguneak dira eta aniztasun biologikoaren zati handi bat gordetzen dute. Hezegune handiak, animalia eta landare espezie asko gordetzen dituztenez, babestuak egon ohi dira. Hala ere, espezie askorentzat hezegune handi horiek baino garrantzia handiagoa dute inongo babesik jasotzen ez duten urmael, putzu edota uraska txikiak ere, hau da mikrohezeguneak. Habitat horiek era nabariagoan jasaten dituzte jatorri antropikoko aldaketak. Sarritan zabortege moduan erabili ziren, are eta gehiago, eman zaien garrantzia eskasa medio, obrek, kaminoek eta autoek, besteak beste, ez dituzte errespetatzen. Egoera larri honen aurrean eragitea besterik ez da geratzen. Arazoa sortu duen eragile berbera (gizakia) izan behar baita konponbide. Horregatik maiatzeko aste bukaera hau bailiatu nahi dugu, hezeguneetan bizi diren bizidunen inguruko ezagutza maila areagotzeko, izan ere soilik ezagutzen dena babesten baita.



ARGAZKIA. Iñaki Mezquita.

EGITARAUA

- **Maiatzaren 20**

19:30-20:00 **HITZALDIA.** Ornitho.eus eta SARE proiektuaren aurkezpena.

20:00-21:00 **HITZALDIA.** Aralar Parke Naturaleko anfibioak.

22:00-23:30 **IRTEERA.** Anfibioak ikusteko gaueko irteera Aralar P.N.

- **Maiatzaren 21**

9:00-11:00 **HITZALDIA.** Aralar Parke Naturaleko narrasti eta odonatoak.

11:00-13:30 **IRTEERA.** Narrasti eta Odonatoak ikusteko irteera Aralar P.N.



ARGAZKIA. Egoitz Alkorta.